


# harkua bete berpa



>> KULTURA

## KOMIKIA ZEIN THRILLER PSIKOLOGIKOA

*'Mobilak' izeneko komikia (Ediciones Beta III Milenio, 2016) kaleratu du Arantza Ibarra Kaiet Bengoetxea ilustratzailearekin batera. Aldi berean, 'La ama' thrillerrari azken ikutuak ematen ari da.*

Testua: Lur Mallea - Irudia: Ediciones Beta III Milenio

Areatzan, Bilboko Liburu Azokan aurkeztu dute Arantza Ibarra eta Kaiet Bengoetxeak *Mobilak* komikia. Ekainaren 11n Ediciones Beta III Milenio argitaletxearen standera hurbildu zirenek bai Arantzaren bai Kaieten sinadura eskuratu zuten. "Nahikotxo" komiki sinatu zituzten, besteak beste, "ondo" saldu zelako.

Hurrengo geralekua Ondarrun izango dute. Izan ere, biak jatorriz ondarrutarrak dira. Hortaz, uztaileko azken astean Ondarruko azokan aurkeztuko dute *Mobilak*.

Kritika onak jaso ditu komikiak. "Lan ederra eta hainbestekoa egin dugula esan digute", dio Arantzak. Ez ditu alperrik 70 orrialde liburuak. "Oso entretenigarria" dela ere esan diete. Eta ez gazteek bakarrik. "Helduei ere gustatu zaie. Dibertigarria iruditu zaie".

### **Mobilak**

Bere kuadrillan telefono

mugikorra izan zuen lehena izan zen Arantza. Ikasle zela gurasoekin hitz egiteko erabiltzen zuen. "Katxarro" hura jendaurrean ateratzeak "lotsa" ematen ziola gogoan du. Eta zelan aldatu diren gauzak. Mobilekin ez ezik teknologiarekin lan egitera iritsi da Arantza. Gustuko du teknologia mundua. Baina era berean teknologia munduan "barruraino" sartuta gaudela konturatu da. Horregatik nahi izan du komikian kontsumismoari kritika ere egin. Adibidez, pertsonaia gaiztoaren bitartez. "Telefono zaharrak txikitu eta salgai jartzeko berriak egiten ditu".

Pertsonaia ugari agertzen da 70 orrialdetan zehar. Arantzaren gogokoan saguzar bi dira. Jendea beldurtzeko ikasketak egiten dituzten saguzarrak, hain zuzen ere. Agerikoa denez, ez du fantasia ikuterik falta istorioak. Horixe da egilearen marka. "Beti" gustatu izan zaion "fantasia puntua".

### **Marrakzi bizidunetatik komikira**

*Mobilak* komikiaren istorioa idatzi zuenean marrakzi bizidunetan pentsatzen egin zuen Arantzak. Gidoia Madrilan aurkeztu zuen, "txapelketa batean", eta 20 gidoirik onenen artean hautatu zuten. Sari gisa Cordoban aurkeztu zuen hainbat ekoizleren artean. Ekoizle batek interes handia erakutsi zuen aurrean, azkenean "merkeago" baten alde egin zuen. Orduan erabaki zuen Arantzak "hau atera behar dut", eta *story board*-a egiteari ekin zion komiki formatura egokitzeke. Arantzaren zirriborroak Kaiet Bengoetxeak baliatu ditu behin betiko ilustrazioak egiteko.

### **La ama**

Sortzaile kementsua da Arantza Ibarra. Une honetan *La ama* filmaren ekoizpen osteko lanetan ari da, iraillean Jaenen izango duten estreinaldiari begira. Arantzarenak ditu *La ama*-k gidoia eta zuzendaritza. Eta ekoizle gabeko film luzea

denez, *crowdfunding* bidez finantziatuta, azaldu ez dituen beste hamaikatzok lan ere hartu ditu bere gain.

Nekazal giroan kokatutako thriller psikologikoa da *La ama*. "Ez du zerikusirik nire lehen filmarekin", dio. *Zigortzaileak* (Alokatu, 2011) gaztetxoei zuzendutako abentura eta fantasia filma da. "Hau berriz helduentzako pelikula da".

Jaeneko *cortijo* batean errondatau zuten 2014an. "Cortijoko buru den familiako andrea sadomasokista da", eta bere jira-birako mundua ageri da filmeko azpitraman. Aholkulari izan dute sadomasokismoan aritzen den pertsona bat. "Berak ekarri dizkigu benetako lagitako, laruzko jantzi edota takoidun zapatak".

Trailerra Interneten ikusgai dago. Pelikula osoa iraillean ikusi ahalko da Jaenen lehenik eta Esteponako jaialdian gero. Arantza zabalpenarekin eszeptikoa da.

Jakin badaki ekoizle gabe "oso gogorra" dela film baten banaketa egitea. "Ez da areto komertzialetara helduko. Beste era batera zabaldu beharko dugu, areto independente eta jaialdian. Bai ala bai aterako dugu", dio. 2017 urte hasieran "espero" du Bilbora ekartzea.

# NEU MIT

# JADA

Blas de Ote

CONFORT  
auto